



EGIN LEKU!



OIN ARRIAK

EGIN LEKU. Musikariak oholtzara

Deialdi irekia

EGIN LEKU! Musikari euskaldun hasiberrientzako deialdia da, plaza hartu dezaten laguntza, beren lekua izan dezaten aukera. Musikaren munduan, kantuen konposizioan, lehen urratsak ematen ari diren musikariei leku bat eskaini nahi diegudeialdi ireki honen bitartez. Modu profesionalean diskorik grabatu gabeko musikari hasiberrientzako plaza izango da.

Izaskun Arrue Kulturguneak euskarazko sorkuntza herrikoira zabaltzeko espazioa izan nahi du, eta deialdi honen bitartez Euskal Herriko artista berriei kulturgune euskaltzale honetan jotzeko aukera eman nahi die Lazarraga Kultur Elkartek.

Proposamen hau musikazaleen sorkuntzari lotuta dago eta Izaskun Arrue Kulturgunean antolatuko diren gainontzeko jarduerekin batera kulturguneko programazioaren barruan gauzatuko da.

NOLAKO PROPOSAMENAK EGIN DAITEZKE?

Musikari hasiberrientzako plaza izanik, modu profesionalean diskorik grabatu ez dutenei zuzenduta joango da. Kontzertu kopuruen erdia **35 urtetik beherako gazteek** egindako proposamenentzat izango da. **Aurreko edizioetako irabazleek ezingo dute parte hartu.**

Edozein estilotako musika onartuko da, baina emanaldiko kantuen hitzak gutxienez %75 euskaraz izan beharko dira. Horrez gain, emanaldi osoko komunikazio hizkuntza euskara izango da, baita aldez aurreko produkzio harremanetako hizkuntza ere. **50'-75' arteko emanaldia** prestatu beharko dun musikariak.

NOLA HAR DAITEKE PARTE?

Deialdia abuztuaren 30era arte egongo da zabalik. Denbora tarte hori baliatuko da izena emateko eta proposamenak aurkezteko. [Inprimaki hau](#) bete beharko da, eta bideoan (mp4) nahiz digitalean (mp3) grabatutako hiru kanta bidali beharko dira inprimakiarekin batera (bi kanta gutxienez artistarenak berarenak izan beharko dira).

NORK AUKERATUKO DITU PROPOSAMEN IRABAZLEAK?

- Izaskun Arrue Kulturguneko arduradunek musikari profesional ezberdinez osatutako epaimahaia antolatuko dute.
- Kantuen kalitatea, berritasuna eta euskararen erabilera balioetsiko dira.

ZER ESKAINIKO ZAIE IRABAZLEEI?


Izaskun Arrue Kulturguneak kontzertua egin ahal izateko beharrezko baliabideak ipiniko dituzte musikarien eskura, eta horrez gain, **300€ko ordainsaria** emango da emanaldia prestatzeagatik:



Emanaldiaren komunikazioa: Izaskun Arrue Kulturguneko ohiko zabalkunde euskarrietan: webgunea, kartel digitala, sare sozialak, e.a.



Soinu ekipoa: P. A. bozgorailuak, soinu mahaia, monitoreak eta mikrofonioa.



Ekintza gauzatzeko espazioa: Izaskun Arrue Kulturguneko ohol-tza



Musikari elkartearen bidez, eguneko alta Gizarte Segurantzari.

Musikari elkartearen urtebeteko bazkidetza



NOLAKO KONTZERTUA EGIN BEHARKO DA?

Aukeratutako proposamenen kontzertuetan kantu ezberdinen hitzak gutxienez %75 euskaraz izan beharko dira. Horrez gain, emanaldi osoko komunikazio hizkuntza euskara izango da, baita aldez aurreko produkzio harremanetako hizkuntza ere. 45'-60' arteko emanaldia prestatu beharko du musikariak. Kontzertu hirukoitz bat antolatuko da, eta aukeratutako hiru proposamenek osatuko dute emanaldia.

NOIZ IZANGO DIRA KONTZERTUAK? 2023/2024 IKASTURTEAN ZEHAR

2024ko urtea amaitu aurretik.

NOIZ JAKINARAZIKO DIRA AUKERATUTAKO PROPOSAMENAK?

2024ko irailean zehar.

LEGE-OHARRAK

Hemen ikusi ditzakezu.